

Prentsa oharra
2010eko maiatza

ARTIUM
Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa
Vitoria-Gasteiz
www.artium.org



U.N(inverse)
Txuspo Poyo 2010

Erakusketa

Txuspo Poyo. *U.N(inverse)*

Ekialde Behekoa aretoa, 2010eko maiatzaren 15etik irailaren 5era

Inaugurazioa: maiatzaren 14an, ostirala, 20.00etan

ekoizleak: ARTIUM (Vitoria-Gasteiz) eta Centre d'Art La Panera (Lleida)

Babesleak: El Correo, Arabako Foru Aldundia, Kultura Ministerioa

Erakusketaren katalogoa. Testuen egileak: George Stolz eta Miles Orvell

Dokumentazio gunea: artistari buruzko bibliografia eta informazio gehigarria (aretoan bertan)

Erakusketarekin lotutako jarduerak:

- ✓ Zinema zikloa: Utopia politikoak, ekainaren 5etik 20ra
- ✓ Doako bisitaldi gidatuak ([ikus programa www.artium.org](http://ikus.programa.www.artium.org) gunean)

Art
ium

U.N(Inverse) proiektuak historiaren mekanismo konplexuak aztertu nahi ditu bide etenak erabiliz, esate baterako, Nazio Batuen, eta zehatzago New Yorkeko egoitzako eraikin multzoa, jasotzearen inguruan egon diren interpretazio, narrazio eta fikzio kontuak. Erreferenteen etengabeko aldaketak bidegurutze batera eraman nau, garaiko idealismoaren eta arkitekturaren eta zinemaren sinbolismoaren artean, suntsitze une honetan protagonismo bera dutela. Arkitekturari dagokionez, Le Corbusierrek Wallace-ren (garai hartan modan zegoen arkitektoa) hustutze ideologikoaren aurrean planteatu zituen deskongestioa kentzea eta etetea, gerra hotz betean zinemaren atzealdea eta nola orain NBE Hollywood-eko pertsonaia ezagunez inguratzen den bere mugetatik harago iristeko; horrela, Peter Pan-en Txilintxo da Nazio Batuen enbaxadore berria.

Txuspo Poyo

ARTIUM-EK TXUSPO POYO-REN *U.N(INVERSE)* ERAKUSKETA AURKEZTU DU

Askatasun, gardentasun politiko eta parte-hartze demokratikoaren mitoei buruzko erakusketa bat, zinemaren, arkitekturaren eta arte garaikidearen aipamen gurutzatuak dituena.

ARTIUM, Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoak Txuspo Poyoren *U.N(inverse)* erakusketa aurkeztu du (Ekialde-Behekoa aretoa, 2010eko irailaren 5 arte), utopia politikoei buruzko erakusketa bat, oinarrian New Yorken dagoen Nazio Batuen eraikinaren irudia duena. Erakusketaren pieza nagusia eta izena ematen diona aipatutako eraikinari eta honek izan ditzakeen interpretazio ugarietara buruzko animazio bideo bat den arren, *U.N(inverse)* erakusketak Txuspo Poyoren multidisziplinariotasunaren berri ematen du: bideoaz gainera bisitariak marrazkiak eta eskulturak aurkituko ditu, besteak beste Foucault-en pendulua, Nazio Batuen eraikinaren atarte dagoena gogora dakarrena. Poyok askatasunaren, gardentasun politikoaren eta parte-hartze demokratikoaren mitoak aztertzen ditu zinema, arte eta arkitektura garaikideen erreferentzia gurutzatuen bidez. Erakusketaren ekoizleak ARTIUM (Vitoria-Gasteiz) eta Centre d'Art La Panera (Lleida) izan dira, Arabako Foru Aldundia, Ministerio de Cultura eta El Correo-ren babesarekin.

Txuspo Poyo (Altsasu, 1963) ibilbide luzea duen artista multidisziplinarioa da, azken urteetan nagusiki ikus-entzunezkoen arloa landu duena. Bilbotik Nueva Yorkera, Kanadara eta Erdialdeko Amerikara, Txuspo Poyo historia etenaren eta iruditeria kolektiboaren erreferentziak biltzen dituen lan bat eraikiz joan da, artearen historian eta zinemaren munduan oinarrituz. Bere lanetan Mendebaldeko gizartearen errealitate sozio-kulturala irudikatze erabili ohi diren topikoen beste irakurketa bat eskaintzen du.

Erakusketaren elementu nagusia, izena ematen diona eta egituratzen duena *U.N(inverse)* izeneko 3Dko animazio lan bat da. Izenburu horrek Nazio Batuen ingelesezko siglak (UN) eta UNIVERSAL zinema-estudioak ditu aldi berean aipagai. Animazio lan horretan Txuspo Poyok New Yorken dagoen Nazio Batuen eraikinaren —Le Corbusier-ek sortua— ikono-balioa interpretatzen du, munduko nazioen arteko batasunaren utopia politikoa sortutako proiektua, arkitektura garaikidearen sinbolo eta ikus-entzunezko industriaren ikono den aldetik. *U.N(inverse)*-n eraikin horren kanpo aldearen eta barru aldearen ibili birtuala egiten da, baina helburua ez da dokumental bat egitea, aitzitik, munduaren hauskortasunari buruzko eduki metaforiko handia duten irudiz betetako fikzio poetikoa da.

Berez, erakusketa —bideoa, eskultura, marrazkia eta instalazioa biltzen dituen multzo korapilatsua— askatasunaren, gardentasun politikoaren eta parte-hartze demokratikoaren mitoen azterketa da, zinema, arte eta arkitektura modernoaren arteko erreferentzia gurutzatuen bidez. Egungo sistema politikoaren jatorriari eta honek eragin dituen irudikatze moduei buruzko gogoeta ere bada erakusketa, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta aro berri baten sinbolo izateko New Yorken jaso zen eraikinaren arkitekturaren inguruan, batez ere.

U.N(inverse) animazio-lana bi pantailatan proiektatuko da T baten tankera duen eta aretoaren gune nagusia zeharkatzen duen horma luze baten alde batean. Hortik abiatuta, nahitaez lineala izan behar ez duen era batean hedatzen da erakusketa. Elementu bakoitzak esanahi desberdinak izan ditzake, erakusketako gainerako elementuekin dituen harremanen arabera. Lehendabizikoak honako hauek dira: sabaitik zintzilik ikusleek gainean dagoen eta horman errainu kezagarria proiektatzen duen kanpai bat (*Glory Hole*); Foucault-en pendulu bat (*Full Time*), NBE-n Asanblada Nagusiaren eraikinaren atarte dagoena gogorarazten duena; Nazio Batuen eraikin multzoaren maketa bat oreka zailean, Le Corbusier-en *Scheme 23A* gogorarazten duena... Hiru argi-kutxa txiki, irteera-ateen gainean egon ohi diren antzekoak — *Exit, Exile, Exist*— egituratzen dute aretoaren zati bat.

Harreman sarea zabaltzen da lan hauek eta Txuspo Poyok azken urteetan egin dituen beste batzuk elkarrekin lotzean. Horien artean daude, besteak beste, herrialde batzuetako eta besteetako egunkariaren azaletan egindako marrazki ezagunak, eta, bereziki, hamabost bideo eta animazio inguru, zinemaren eta artearen historiaren aipamen garbiak dituztenak: *MHT (Monkey Honky Town) —2001: A Space Odyssey* pelikulako sinbologiaren ingurukoak—; *Ambientes hostiles* —industria ondoko gizartearen erreferentziak dituen paisaje konplexua mailu eta iltzeen bidez osatua—; *Delay Glass* —Marcel Duchamp-en *Le Grand Verre* lanaren 3D-ko ibilbidea—; *Cartoon* —marrazki bizidunen eragin psikologikoei buruzko dokumental bat, lauroteita hamarretan jostailuzko bideo kamera batekin egin eta besteak beste Rogelio López Cuenca, Nazario eta Ruper Ordorika

artistei egindako elkarrizketak dituena—; *Herrorismo*—16 mm-ko pelikulan egindako animazioa, non Metro-ko lehoia proiektagailuaren lanpararen berotasunagatik erretzen hasten den eta gero, bere berezko *The End*-ean, berriz osatzen den.

Erakusketaren inguruan argitaratu diren testuetan esaten den eran, horren guztiaren emaitza «sinbolo historiko, sozial, politiko eta teknologikoen *totum revolutum* delako liluragarria da, iruditeria kolektiboa osatzen duen ikono sistema bat, literaltasunaren eta metaforaren artean kulunka». Erakusketak dokumentazio gune zabla du gainera, eta ARTIUMek eta La Panera-k elkarrekin argitaratutako katalogo bat ere bat, George Stolz-en eta Miles Orvell-en testu bana dituena. Erakusketaren inauguraziorako egunkari itxurako argitalpen bat egin da, gainera, Miles Orvell-en testuarekin.

ARTIUMeko erakusketak

Denbora mendekatzailea. Bilduma IX

Hegoa aretoa, irailaren 5 arte

Juan Hidalgo. *Desde Ayacata*

Iparra aretoa, irailaren 5 arte

Txuspo Poyo. *U.N(inverse)*

Ekialde-Behekoa aretoa, irailaren 5 arte

Aurki

Aitor Lajarín. *From Here To Everywhere*

Ekialde-Behekoa aretoa, urriaren 8tik aurrera

Jaime Davidovich. *Biting the Hand that Feeds You*

Iparra aretoa, urriaren 8tik aurrera

Basado en hechos reales. ARTIUM Bilduma X

Hegoa aretoa, urriaren 8tik aurrera

Zentro-Museoaren ordutegia

Asteartetik ostegunera: 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara

Ostiral, larunbat eta ingandek: 11.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 21.00etara

Lanegun asteleheneretan: itxita

«Zuk nahi duzuna» tarifa: gutxienez € 0,01. 2010 urte osoan zuk erabakiko duzu erakusketez gozatzeko zenbat ordaindu. Emandako diruarekin ARTIUMen gizarte eta kultura-proiektua babesten ari zara.

Liburutegi eta Dokumentazio Zentroaren ordutegia

Asteleheneretik ostiralera: 11.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 19.30era

Larunbatak: 10.00etatik 14.00etara

Igandek: itxita